



**HEZKUNTZA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
*Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**

Viceconsejería de Administración y Servicios  
*Dirección de Gestión de Personal*

# **IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENA 2019-2020**

**Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioak**

**Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dauden lan-legepeko irakasle finkoak**

## **Prozesuaren gida**

Vitoria-Gasteiz, 2019-06-17



## I. ARAUDIA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak **2012ko ekainaren 6an emandako Aginduak** arautzen du ikasturte hasierako esleipen-prozesua, Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioei eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dauden lan-legepeko irakasle finkoei dagokienez.

Agindu hori 2012ko ekainaren 19an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

2014ko ekainaren 26an emandako Aginduak 2012ko ekainaren 6ko Agindua lehen aldiz aldatu zuen. Aldaketa hau 2014ko uztailaren 8an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Beranduago, 2016ko ekainaren 20an emandako Aginduak 2012ko ekainaren 6ko Agindua bigarren aldiz aldatu zuen. Aldaketa hau 2016ko ekainaren 20an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

## II. NORK HARTU BEHAR DUEN PARTE

Prozesu honetan Hezkuntza Sailaren mendeko **karrerako irakasle funtzionarioek** edo Haur eta Lehen Hezkuntzan dauden **lan-legepeko langile finkoek** hartuko dute parte, **inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada**:

- a) **Behin betiko destinorik gabe** zerbitzua ematen egotea, **edo behin betiko destinoa** edozein arrazoirengatik **ez betetzea**.
- b) **Zerbitzu aktibora itzultzea eskatzea**, 2019-2020 ikasturte-hasieratik hasita.

## III. ESLEIPEN-TALDEAK

Parte-hartzaileak esleipen-talde hauetan bilduko dira:

- a) Haien **lanpostua eraldatzeagatik** behin betiko destinoa hizkuntza-eskakizuna betearen duten lanpostuetan izan eta egiaztatu ez duten pertsonak.
- b) Esleipen-prozesua burutzen den ikasturterako **nahikoa ordu ez duen** behin betiko destinoa duten lanpostuak.
- d) Behin betiko destinoa espresuki **kendu zaien** pertsonak.
- e) **Epaia betetzeagatik** behin betiko destinoa galdu duten pertsonak.
- f) Lanpostu huts bat betetzeko **zerbitzu-eginkizun bat** eman zaien pertsonak.
- g) **Destinoaren zain dauden**, edo behin-behineko destinoa duten beste pertsona batzuk.



#### IV. ZELAN HARTU BEHAR DEN PARTE

Esleipen-talde baten egoteko baldintzak betetzen dituzten pertsonak **derrigorrez** hartu beharko dute parte, jarraian agertzen den kasuan izan ezik:

.Lanpostu zehatzak zerbitzu-eginkizunez betetzeko deialdietan lanpostua lortu duten pertsonak.

#### V. ESLEIPEN ESPARRUAK

Lanpostuak esparru hauetan esleituko dira:

- a) **erreferentziako ikastetxea**, talde guztientzat, arrazoiren bat tarteko erreferentziako ikastetxerik ez duten horientzat izan ezik.
- b) **herria**, g) taldeko pertsonentzat, kanpoko lanpostuetan atxikita egoteagatik behin betiko destinoa galdu zutenak.
- c) **eskola-bilgunea**, a), b) eta d) taldeentzat.
- d) **lurralde historikoa**, talde guztientzat.

Lanpostuak hautatzeko lehenengo esparrua erreferentziako-ikastetxea da. Horren atzetik, gero eta esparru handiagoetara zabaltzen da hautapena (herria, bilgunea eta lurraldea, parte-hartzaileen arabera).

Esparruren batean lanpostua eskuratu duten pertsonak ez dute hurrengo esparruan edo esparruetan parte hartuko. Aitzitik, esparru batean lanpostua lortzen ez dutenek gainontzeko esparruetan parte hartzen jarraituko dute.

Horregatik, **esleipen-esparru baten baino gehiagoetan parte hartzeko eskubidea duten pertsonak dagokien esparru guztietako eskabide-atalak bete beharko dituzte**. Lanpostua lortzen dutenean, parte hartu ez duten esparruei dagokienez egin ahal izan diren eskabideak ez dira kontuan hartuko, baina esparru batean ez badute lortzen, hurrengo esparru(et)an ere eskabideetan adierazi dituen lehentasunak hartuko dira kontuan.

#### VI ZELAN ZEHAZTU ERREFERENTZIAKO IKASTETXEA ETA GAINONTZEKO ESLEIPEN-ESPARRUAK

Parte-hartzaile bakoitzaren **erreferentziako ikastetxea** 2019ko otsailaren lehen lanegunetik ekainaren azken lanegunera zerbitzua eman duen ikastetxea da.

Hala ere, **berariazko kasu** hauek hartu behar dira kontuan:

- a), b) eta d) **taldeak**: esandakoaren arabera lortu den erreferentziako ikastetxea ez bada behin betiko destinoa duten ikastetxea edo ezabatuaeren egoera lortu zuten ikastetxea, pertsona hauek eskatu ahal izango dute erreferentziako ikastetxetzat



behin betiko destinoko ikastetxea edo izaera hori lortu zutenekoa hartzea. Eskabide elektronikoan bertan eskatu beharko dute hori.

**Ikastetxeak aldatzea:** esandakoaren arabera lortu den erreferentziako ikastetxea beste batekin bat egin bada, fusioaren ondoriozko ikastetxe berria izango da erreferentziako ikastetxea. Zatitu egin bada, ondoriozko ikastetxe guztietan gordeko dute erreferentzia; beraz, eskabide elektronikoan bertan bat aukeratu beharko du.

**Behin betiko lanposturik gabe eta egoera berezietan dauden pertsonak:** IRALE programa edo liberazio sindikala amaituta sistemara bueltatzen direnek, edo zerbitzu berezietatik lanera itzultzen diren pertsonak egoera horietara joan zireneko ikastetxean izango dute erreferentzia. Gauza bera adin txikiko seme edo alaba edo ahaideak zaintzeagatik eszedentziaz lanera itzultzen direnek, beti ere behin betiko destinoa gordeta izateko epea ez bada gainditu.

**Zerbitzu eginkizunetan daudenak:** 2018-2019 ikasturtean zerbitzu eginkizuna izan ez, baina 2019-2020 ikasturtean zerbitzu-eginkizuna izango duten pertsonak bakarrik izango dute erreferentziako ikastetxea behin betiko destinoko ikastetxea denean. 2018-2019 ikasturtean zerbitzu eginkizunean egon direnek bakarrik izango dute erreferentziako ikastetxea behin betiko destinoko ikastetxea denean edo 2019-2020 ikasturterako zerbitzu eginkizuna ere badaukate.

Gainontzeko esleipen-esparruak erreferentziako ikastetxetik datoz. Beraz, parte hartzen duen pertsona bakoitzaren **herria, eskola-bilgunea eta lurralde historikoa** erreferentziako ikastetxea dagoenekoak izango dira.

**Erreferentziako ikastetxerik** ez duten pertsonak lurralde historikoan hartuko dute parte. Lurralde historikoa honela zehaztuko da:

Zerbitzua ematera itzultzen diren pertsonak zerbitzua emateari utzi ziotenean zeuden lurralde historikoa.

Itzultzen diren pertsonak itzultzea emateko ebazpenean ageri den lurralde historikoa.

Zerbitzu eginkizuna lortzen dutenak edo egoera horri amaiera eman diotenak 2018-2019 ikasturtean zerbitzua bete duten lurralde historikoa.

## VII. UKO EGITEAK ETA ALDAKETAK ESLEIPEN-ESPARRUETAN

### A- Esleipen-esparruei uko egiteko

**Erreferentziako ikastetxean hautatzeari uko egin** ahal izango diete gutxienez **azken bi ikasturteak** ikastetxe horretan eman dituztenek.

**Herrian eta bilgunean hautatzeari uko egitea librea** da esparru horietan esleitzeko eskubidea dutenentzako.



Uko egiteak **parte hartzeko eskabide elektronikoan bertan** markatu beharko dituzte interesdunek (ez, orain arte moduan, aurretik aurkeztu behar zirela).

Horretarako, dagokien laukiak aktibatu beharko dituzte, **espresuki** adierazteko. Kontuan izan esparru batean lanposturik ez eskatzea ez dela uko egitetzat hartuko, eta administrazioak lanpostua ofizioz esleitu ahal izango luke.

Uko egite hiru hauek ez daude bata besteari lotuta; beraz, bata zein bestea zein hiruak markatu ahal dira.

Esleipen-esparru bati uko egiten dionak dagokion hurrengo esparruan parte hartuko du.

#### B- Lurralde historikoa aldatzeko

Edozein parte-hartzailek eska dezake lanpostuak haien **erreferentziako ikastetxearena ez den lurralde historikoaren esparruan hautatzea**, erreferentziako lurralde historikoan guzxienez **azken bi ikasturteak** eman badituzte.

Aukera hau **idatziz** eta **aurretik** egin beharko da, eta gauzatu ahal izateko, administrazioak **onartu beharko du**, joan nahi duen lurraldean zenbat lanpostu eta pertsona dauden kontuan hartuta.

Pertsona batek lurralde historikoa aldatzen duenean irizpide orokorren arabera zegozkion erreferentziako ikastetxean, herrian, eskola-bilgunean eta lurralde historikoan esleipenari uko egiten du.

### VIII. ZEIN LANPOSTU ESLEITUKO DIREN

Prozesu honetan **baldintza hauek guztiak** betetzen dituzten lanpostuak esleituko dira:

.**irakasle**-lanpostuak izatea.

.Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko **ikastetxe publikoetan** egotea.

.Maisu-Maistren kidegoko **espezialitatekoak** izatea, edo Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoko espezialitatekoak badira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetan egotea.

.**hutsik egotea** edo titularrek edo eskubide onena dutenek **beterik ez egotea**.

.egoera horrek **ikasturte osoa irauango duela** aurreikusten bada.

.**esleitzeko unean existitzen direnak** eta esleitzeko lanpostuen zerrendan argitaratu direnak.

Horrela, titularrik ez duten lanpostuez gain, besteak beste, ezaugarri hauek dituzten lanpostu hauek esleituko dira: titularra zerbitzu eginkizunak edo zerbitzu bereziak ematen, liberazio



sindikalean, urte sabatikoko baimenarekin, ikasturte osoan IRALEko liberazioan egotea, edo deialdi batean onartua izateagatik ikasturte osoan ez egotea.

Fase bakoitzean, aurreko fase(et)an bete ez diren lanpostuak esleituko dira.

Prozesuko lanpostuak hura **hasi aurretik jarriko dira jendaurrean**, haien ezaugarriak biltzen dituen zerrenda baten bidez. Argitara emango dira Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.

Lanpostuen zenbait ezaugarriren arabera, era desberdinetan jokatuko dira eskabideetan. Hauek dira ezaugarriak eta ondorioak:

- a) **Lanaldi murriztuko lanpostuak:** ez dira esleituko karrerako funtzionarioen eta lan-legepeko irakasle finkoen prozesuan. Hala ere, jardunaldia murrizteko eskubidea duenak geroago eskatu ahal izango du lanpostuaren jardunaldia murrizteko.
- b) **Lanpostu ibiltariak eta lanpostu bereziak:** egoera horietan ez dauden gainerako lanpostuak bezalaxe esleituko dira. Eskatu ahal dira eskaera zehatzetan eta kontuan hartuko dira bai eskaera generikoen garapenean, bai nahitaezko eskaerak sortzean, XI eta XII ataletan adierazitako irizpideen arabera.
- c) **Ezaugarri bereziko lanpostu gisa espresuki kalifikatutako lanpostuak:** Lanpostu horiek bakarrik esleituko dira eskaera zehatzetan eskatuak izan badira, hau da, lanpostuak argitaratutako zerrendan esleituta duen ordena-zenbakia adieraziz. Hortaz, ez dira sartuko ez eskaera generikoen garapenean, ez nahitaezko eskaerak sortzean (XI eta XII ataletan azaltzen dira garapen horiek).

Ezaugarri bereziak dituzten lanpostu gisa espresuki kalifikatzen dira Berritzeguneetan, IBTetan eta Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko-Hezigarrirako Lurralde Zentroetan kokatzen direnak.

Halaber, Espetxeetan eman beharrekoak eta errelebo-kontratu batetik sortutakoak, betiere lanpostuen zerrendan horrela jasota egonez gero.

Kalifikazio bera izango dute espezialitate bat ingelesez edo frantsesez ematea eskatzen duen lanpostuek (hirueletasuna), Langileak Kudeatzeko zuzendariak ikasturte hasierako esleipen-prozesura urtero deitzeko ematen duen ebazpenean agertzen ez diren espezialitateetako lanpostuek, edo ebazpen horretan jaso ez den tipologiako ikastetxeetako lanpostuek.

Azkenik, ezaugarri bereziko lanpostu gisa kalifikatuko dira beren osaketaren edo bestelako ezaugarrien ondorioz kalifikazio hori izatea gomendatzen dutenak.

## IX. LANPOSTUAK LORTZEKO BETEKIZUNAK

### A) Betekizun orokorrak

Lanpostu bat eslei diezaioten, parte-hartzaileak **baldintza orokor hauek** bete beharko



ditu:

- a) Maisu-Maistren kidegokoa izatea, edo lan-legepeko irakasle finkoa Haur eta Lehen Hezkuntzan izatea.
- b) Lanpostuari dagokion **espezialitatearen titular izatea**, edo habilitazioa izatea.

Kontuan izan **espezialitate eta habilitazio batzuetan espezialitate bat baino gehiagorako sarbidea** dagoela, eta batzuetan lanpostuak daudela **hezkuntza maila desberdinetan**. Eskatzeko kodeak, beraz, **desberdinak** dira.

Emango den ikasgaiari dagokion espezialitatea edo habilitazioa dutenei esleituko zaizkie maisu-maistren lanpostu-zerrendetako **Helduen Hezkuntzako** lanpostuak (HHE Hasierako irakaskuntza Lehen Hezkuntzari dagokiola ulertuko da).

**2007tik aurrera deitutako hautaketa-prozesuetan** karrerako funtzionario izendatu eta lekualdatze-lehiaketan behin betiko destinorik lortu ez duten pertsoneri, oposizioan gairitu zuten espezialitateko lanpostu bat esleituko zaie.

Lurralde historikoan ez bada bere espezialitateko edo habilitazioko lanposturik, espezialitate hauetako lanpostuak esleituko dira: HHE Hasierako Irakaskuntza (HHH) eta Lehen Hezkuntza (LH).

- c) Derrigorrezko-data betea duen lanpostuak eskatutako **euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea**.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten pertsonen 2. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigorrezkotasun-data beteko lanpostuak eskuratuko dituzte. 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak ere eskura ditzakete kasu hauetan:

- a) Erreferentziako ikastetxean, eta a), b), c) eta d) taldeetakoentzat, eskola-barrutian ere, 2. hizkuntza-eskakizuna duten derrigortasun-data beteko lanposturik ez bada.
- b) Lurralde historikoan, baldin aukera hori baliatzeak ez badu galarazten eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez dutenek lanpostua eskuratzea.

#### B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lanpostuetarako sarbidea

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako** lehen eta bigarren mailetan dauden lanpostuak, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko espezialitateetakoak direnean, bakar-bakarrik ezaugarri horiek dituzten lanpostuetan **behin betiko destinoa** dutenei edo lanpostu horietan **azken behin betiko destinoa kendu** zaien pertsoneri esleitu ahal izango zaizkie.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetan dauden lanpostuak, **Maisu-Maistren kidegoko espezialitateetakoak** direnean (Pedagogia terapeutikoa eta Entzumena eta hizkuntza), edozein parte-hartzailek eskura ditzake.



### C) Atzerriko hizkuntzan emateko lanpostuak

Ikasgai edo espezialitate bat atzerriko hizkuntzan ematea eskatzen duen lanpostu bat betetzeko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, atzerriko hizkuntzan eskolak emateko ezarritako **espezialitate- edo titulazio-baldintzak** egiaztatu beharko dira.

### D) Atzerriko hizkuntza batzuk emateko lanpostuak

Atzerriko bi hizkuntza ematea eskatzen duen lanpostu bat betetzeko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, gutxienez hizkuntzen erreferentziako esparru komun europarraren **B2 maila** gainditu izana egiaztatu beharko da, ordu **kopuru txikiena duen hizkuntzari dagokionez**.

### E) Lanpostuaren beste betekizun batzuk

Lanpostuak beste betekizun batzuk eskatzen baditu, betekizun horiek betetzen dituela egiaztatua izan beharko luke esleipendunak.

## X. ESKABIDEAK

### A) Orokorrean

Prozesuan parte hartzeko irakaslegunean eskuragarri dagoen **eskabide elektronikoa** bete beharko da, <http://www.irakasle.eus> helbidetik sartuta. Aplikazioan sartzeko pertsona bakoitzak daukan erabiltzaile-gakoa erabili beharko da. Gakoa baliogabetu edo ahaztu egin duenak gakoa berreskuratzeko zerbitzuaz baliatu ahal izango du.

Irakaslegunean sartzeko Internet-konexioa daukan **edozein ordenagailu** erabili ahal da. Hala ere, Hezkuntza Sailak eskabideak sartzeko puntuak gaituko ditu, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan.

### B) Eskabidea aurkezteko epea

Eskabidea betetzeko epea **2019ko uztailaren 1ko 14:00etan ireki, eta 2019ko uztailaren 3ko 14:00etan itxiko da**.

### C) Eskabidea zelan bete

Eskabide **bakarra** izango da parte-hartzailearen esparru eta fase guztietarako. Hala ere, **esparru bakoitza eskabidearen atal desberdin batean** agertuko da (erreferentziako ikastetxea, herria, bilgunea, lurralde historikoa, hurrenkera horretan).

Eskabidearen atal bakoitzean **eskaera-lerro** batzuk agertzen dira (15 lerro erreferentziako ikastetxerako; 30 lerro, eskola-bilgunerako, eta 300 lerro, lurralde historikorako). Ez da derrigorrezkoa guzti-guztiak betetzea.

Aurretik esanda moduan, **esleipen-esparru baten baino gehiagoetan** parte hartzeko eskubidea duten pertsonak **dagokien esparru guztietako eskabide-atalak bete beharko dituzte**, nahiz eta lehenengo esparruan esleitua izango dela pentsatu. Horrela,





edozein arrazoiengatik, pentsatutako esparruan ez bazaio esleitzen, administrazioak jakingo du hurrengo esparruetarako zer nahi duen berak, eta ez dio lanpostua ofizioz emango.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten pertsonen 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak eskatu ahal izango dituzte, baina eskabide horiek bakar-bakarrik hartuko dira kontuan dagokion esparruan lanpostu gutxi dauden zenbait kasutan (ikus IX atala).

Eskatzeko **era bi** daude:

- a) **eskabide zehatza**: argitaratutako zerrendan lanpostuak esleituta duen ordena-zenbakia adierazten denean. **Lanpostu bakarrari** dagokio.
- b) **eskabide generikoa**: lanpostuen ezaugarri definitzaileei buruzko eremu bat edo batzuk betetzen direnean. Posiblea da betetzea eremu bakar bat edo bat baino gehiago aldi berean.

Eremuak hauexek dira: Eskola-bilgunea, Udalerria, Ikastetxea, Espezialitatea, Hizkuntza-eskakizuna, Derrigorrezkotasuna, Ibiltaritza, Berezia.

Eskaera honek berekin dakar erabilitako eremuari edo eremuei **dagozkien lanpostu guztiak** eskatzen direla, eskatzaileak horiek lortzeko betekizunak betetzen baditu, eta sistema informatikoak garatuko du.

Kontuan izan behar duzu ikastetxe berean egon daitezkeela **espezialitate edo maila desberdinei dagozkien lanpostuak, baina espezialitate bakarrari dagozkionak**. Lanpostu horiek **espezialitate-kode desberdinak** dituzte. Zure eskaeran espezialitate-kodea erabiliz gero, batzuk edo besteak aukeratu dituzu. Aitzitik, soilik beste eremu batzuk erabiltzen badituzu, bilgunea, udalerria edo ikastetxea esaterako, horiek guztiak esleitu dakizkizuke.

#### D) Erreferentziako ikastetxea aukeratzeko laukiak

Pertsona batek erreferentziako **ikastetxe bat baino gehiago eduki ahal duenean** [a), b) eta d) esleipen-taldeen kasuetan, edo ikastetxeak aldatzen direnean], eskabideak 2018-2019 ikasturtean zerbitzuak eman dituen ikastetxea izango du aurreauketatua. Parte-hartzaileak eskubidea duen edozein ikastetxe aukeratu ahal izango du.

Eskabideak aukeratutako ikastetxeak izango dira. Beraz, eskabideak egin ostean ikastetxea aldatzen bada, sartutako eskabideak ezabatuko dira.

#### E) Esleipen-esparruei uko egiteko laukiak

**Erreferentziako ikastetxean, herrian eta eskola-bilgunean esleipenari uko egiteko aukera** emango dio eskabideak horretarako baldintzak betetzen dituenari.

### XI. ZELAN GARATZEN DIREN ESKAERA GENERIKOAK

Aplikazio informatikoak **eskaera generikoak barne hartzen duten lanpostu-multzoan** garatuko ditu. **Lanpostu guztiak izango dira eskabidearen parte.**



Horretarako kontuan izan beharko ditu eskatzaileak **prozesuan parte hartzen duen aukera guztiak**, IX. atalean ("Lanpostuak lortzeko betekizunak") adierazten den moduan.

Bereziki aipatu nahi da berriro hemen aurreko ataleko C paragrafoan agertzen dena, maila edo espezialitate desberdinetako lanpostuetarako sarbidea ematen duten espezialitateei buruzkoa.

Irizpide horiek kontuan izanda, lanpostuaren ordena-zenbakia ez den **zutabe bati dagokion laukia betetzeak** esan nahi du horren eskuinaldeko zutabe guztiek aipatzen dituzten edozein aukera betetzen duten **lanpostu guztiak eskatzea**, ezaugarri berezietako lanpostuak izan ezik. Zutabe bat baino gehiagotako laukiak betetzen badira, erabilitako zutabeetan adierazitakoak ez diren aukerak ez dira kontuan izango.

Horrela, pertsona batek bilgune bat soilik markatzen duenean, horrek esan nahi du bilgunearen udalerrri guztietako ikastetxe guztietan pertsona horrek lor ditzakeen lanpostu guztiak eskatzen dituztela, berak erabili ahal dituen espezialitate eta hizkuntza-eskakizun guztietakoak, lanaldi mota guztietan, ibiltariak eta ez-ibiltariak, bereziak eta ez-bereziak, ezaugarri bereziko gisa argitaratutako lanpostuak izan ezik.

Aldiz, pertsona baten eskabidea bada bilgune bat, 1. Hizkuntza-eskakizuna, ez-ibiltaria eta ez-berezia, pertsona horrek hauxe eskatzen dabil: bilgunearen udalerrri guztietako ikastetxe guztietan pertsona horrek espezialitatez lor ditzakeen lanpostu guztiak, lanaldi mota guztietan, baina beti ere 1. Hizkuntza-eskakizunekoak ez-ibiltariak eta ez-bereziak badira, (ezaugarri bereziko gisa argitaratutako lanpostuak izan ezik).

**Eskaera generikoak** barne dituen lanpostuak sailkatzeko 2012ko ekainaren 6ko Aginduak aurretik ezartzen dituen irizpideak erabiliko dira.

Sailkatzeko irizpide orokorrak hauexek dira:

.aurretik ezarritako Lurralde Historikoa-Barrutia-Udalerrria-Ikastetxea ordenaren arabera, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ikasturte hasierako esleipen-prozesura urtero deitzeko ematen duen ebazpenean ezarritakoa.

.ikastetxe bakoitzaren barruan, zehaztutako espezialitate-ordenaren arabera, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ikasturte hasierako esleipen-prozesura urtero deitzeko ematen duen ebazpenean ezarritakoa

.espezialitate bakoitzaren barruan, 2. hizkuntza-eskakizunekoak 1. hizkuntza-eskakizunekoak baino lehen.

.hizkuntza-eskakizun bakoitzaren barruan, indarreko derrigorrezkototasunak atzeratuak baino lehen.

.derrigorrezkototasun bakoitzean, ez-ibiltariak ibiltariak baino lehen esleituko dira.  
 .lanpostu ez-bereziak bereziak baino lehen.



.aurreko ezaugarri guztiak berdinak badira, lanpostuaren ordena-zenbakiaren arabera sailkatuko dira, txikienetatik handienara.

Irizpide orokor hauek dagokion esleipen-esparruari moldatu behar dira. Horrez gain, kontuan hartu behar da parte-hartzaileek zein lanpostu aukeratu ahal duten, egiaztatuta daukaten hizkuntza-eskakizunaren arabera. Horrela, 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuei dagozkien eskabideak, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duen pertsona batek egindako eskaera generiko baten garapenetik datozenak, bakar-bakarrik hartuko dira kontuan esleipen-esparruan lanpostu gutxi dauden zenbait kasutan (ikus IX atala).

Eskaera-lerro baten ondoriozko lanpostuak deskribatutako irizpideen arabera ordenatuko dira euren artean, eta lanpostu guztiak hurrengo eskaera-lerroari dagokion lanpostuaren edo lanpostuen aurreko ordena-zenbakian jarriko dira.

## XII. OFIZIOZKO ESKABIDEAK. ZELAN SORTZEN DIREN NAHITAEZKO ESKAERAK

### A) Ofiziozko eskabideak

Prozesuan **nahitaez** parte hartu behar duen pertsona batek **eskabidea aurkezten ez** badu, **ofizioz sortuko zaio**.

### B) Zelan sortzen diren nahitaezko eskaerak

Prozesuan **nahitaez** parte hartu behar duen pertsona batek lortu ahal dituen **lanpostu guztiak eskatu ez** baditu, sistema informatikoak gehieneko eskaera-mugaraino osatuko du eskabidea.

Horretarako kontuan izan beharko ditu eskatzaileak **prozesuan parte hartzen duen aukera guztiak**, IX. atalean ("Lanpostuak lortzeko betekizunak") adierazten den moduan.

Nahitaezko eskaerak sortzeko eskaera generikoen garapenerako finkatutako **irizpide berberak** jarraituko dira.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten pertsonen ez zaizkie ofizioz 1. hizkuntza-eskakizuneko lanposturako eskabideak sortuko erreferentziako ikastetxean, herrian eta bilgunean. Aitzitik, eskabide horiek bai sortuko zaizkiela lurralde historikoan, beste 2. hizkuntza-eskakizuneko lanposturik ez daudenean kontuan hartzeko.

Azkenik, eta sistema ixteko moduan, pertsona batek daukan espezialitateko edo habilitazioko lanposturik ezin bazaio esleitu, "Lehen hezkuntza" eta "HHI Hasierako irakaskuntza" espezialitateko lanpostuak esleitu ahal izango zaizkio.

Sorkuntza horren ondoriozko lanpostuak deskribatutako irizpideen arabera ordenatuko dira euren artean, eta lanpostuak guztiak borondatezko azken eskaeraren hurrengo ordena-zenbakian jarriko dira.

## XIII. ESLEIPENAREN FASEAK

Prozesuak **hainbat fase ditu**, kontuan izan behar diren lehentasunen arabera, hau da, parte-



hartze taldeetan banatzea eta espezialitatea izatea, zerbitzua ematen duten ikastetxearekiko pertsonak duten harremana edo esleipen-eremuaren arabera definituak. Hain zuzen ere, hauexek dira segidako fase horiek:

1. fasea: a) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean.
2. fasea: b) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean.
3. fasea: d) taldea, behin betiko azken destinoa izan zuten ikastetxean.
4. fasea: a), b) eta d) taldeak, elkarrekin, erreferentziako ikastetxean, behin betiko destinoa ez den beste bat bada.
5. fasea: e) taldea, erreferentziako ikastetxean.
6. fasea: a), b) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxearen bilgunean.
7. fasea: a), b), d) eta e) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan.
8. fasea: f) taldea, erreferentziako ikastetxean.
9. fasea: g) taldea, erreferentziako ikastetxean.
10. fasea: f) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan.
11. fasea: Kanpoko lanpostuetako atxikipenetatik behin-behineko destinoarekin datozen pertsonak behin betiko azken destinoa izan zuten herrian.
12. fasea: g) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan.

#### XIV. PARTE-HARTZAILEAK ORDENATZEKO IRIZPIDEAK

Parte-hartzaileak esleipen-esparruari dagozkion irizpideen arabera ordenatuko dira **fase bakoitzean**:

##### A- Irizpide orokorrak

###### Erreferentziako ikastetxean

Eskubide handiena **erreferentziako ikastetxean karrerako funtzionario gisa etengabeko antzinasun handienak** emango du, salbuespen hauekin: behin betiko destinoa erreferentziako ikastetxean izatea, edo bertan kentzea behin betiko azken destinoa. Kasu horietan, ikastetxe horretan behin betiko izendapenez etengabeko antzinasun handiena lehenetsita ordenatuko dira, eta kenduaren izaeran betetako zerbitzu-denbora gehituko zaio horri, egoera horretan dauden pertsonen kasuan.

Berdinketa badago, maisu-maistren **kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora luzeena** izango da kontuan.

Berdinketak irauten badu, maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionario gisa izendatutako data izango da kontuan; eta, izendapen horren barruan, hautatze-



prozesuan lortutako puntuazio handiena.

Gainerako esparruetan

Eskubide handiena maisu-maistren **kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora luzeenak** emango du.

Berdinketa badago, maisu-maistren kidegoko **irakaskuntza-postuetan emandako zerbitzu-denbora luzeena** izango da kontuan, eta berdinketak jarraituz gero, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-postu publikoetan emandako zerbitzu-denbora luzeena.

B- Ikastoletako edo ikastetxe publikatueta pertsonen parte hartzen dutenean

Kasu horretan, pertsona haiei buruzko **berezitasun hauek** hartuko dira kontuan:

Antzintasuna ikastetxean, behin betiko izendapenez: apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuaren 39. artikuluan xedatua aplikatuko da.

Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-denbora: Ikastola, ikastetxe publiko edo publikatueta lan-kontratu mugagabearekin eman duten zerbitzu-denbora zenbatuko zaie.

Azken irizpide hori aplikatzean berdinketa badago, pertsona erasanak maisu-maistren kidegoko irakaskuntza-postuetan, ikastetxe publiko edo publikatueta, emandako zerbitzu-denbora luzeenaren arabera ordenatuko dira.

## XV. LANPOSTUAK ZELAN ESLEITUKO DIREN

Fase bakoitzean parte hartzen duten pertsonak aurreko atalean esandakoaren arabera ordenatuko dira. Lanpostuak pertsona haiei esleituko zaizkie.

Pertsona bakoitzari bere **eskabidea osatzen dutenetatik lehenengo lanpostu libre eta baliozkoa** esleituko zaio. Horretarako kontuan hartuko dira bai eskaera zehatzak, bai eskaera generikoen garapenaren eta nahitaezko eskaeren sorkuntzaren ondoriozkoak, aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera ordenatuta.

## XVI. ERAGINAK ETA IZENDATZEA

Esleitutako lanpostuak betetzeari **ezin izango zaio uko egin**.

Behin betiko destinoa duten pertsonak **zerbitzu-eginkizunetarako** izendatuko dira; gainerakoak, berriz, **behin-behineko destinorako**, zer egoera duten ikusitakoan.

Esleitutako lanposturako izendapenak **2019ko irailaren 1ean** izango du eragina, eta 2020ko abuztuaren 31n amaituko da, titularra duten lanpostuetan izan ezik, hura egun hori baino lehenago itzultzen bada; kasu horretan, izendapena lanera itzultzeko bezperan amaituko da.



## HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
*Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza*

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios  
*Dirección de Gestión de Personal*

Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan dauden lan-legepeko irakasle finkoek esleipen-prozesuan hartu behar dute parte, behin betiko esleituta zeukaten lanpostua aurretik kendu bazaie. Kasu horretan, esleitutako lanpostua **behin betiko kokapenekotzat** joko da, baldin eta lanpostu-zerrendan argitaratu bada, titularrik ez badu eta pertsona erasanak espezialitatearen eta euskarazko hizkuntza-eskakizunaren baldintzak betetzen baditu.